

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

289n. zenbakia
zemendia 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LIEBANA´KO TORIBIO DEUNAREN MONASTEGIA:

- KRISTO´REN KURUTZEAREN ZATIRIK
AUNDIENA
- ORREGAITIK «JUBILEO» NAGUSIA
KARRABAKA´N EGITEN DAN LEZ.

ZER DABIL OR? (IRAILLA)

- Trebiño'n ikastola barria idegi dabe.24 ikasle.Cas-
tilla-Leon aurka.

- Aznar ba-doa,Rajoi ba-dator,lengo bidetik aurrera
dana.

- Mario Onaindia il da:ETA'koa lenengo,eriotzara
epaitua, PSE'n gero.Su-emoille ta su-iltzaille.

- Euskalerrria'n turismoa gora doa: 2002 onena izan
zan, 2003 %2'6 geiago.Gutziz 875.604 etorri dira.

- Gure futbolarrien artetik 71 dabiltz kanpoan, 1º ta
2n. saillean. Athletic'en gitxiegi.

- Aurten matsa ugari ta gozoa. Uzta ona izango da.

- Ikastegietan A eredia artu dabenak (erdera utsa)
%0'6 baiño ez dira, %47'k euskera utsa eskatu dabe
eta %23'k bietara. Ba-dago or itxaropena!

- Jaurlaritzak alderdi politikuen legea salatu dau
Europa'n.

- Lege-Biltzarrak Sozialista Abertzaleak alderdiari
sariak ordaintzea erabagi dau.

- Donosti'ko Gotzaiñak Arantzazu'n agintariak era-
billi leikeen gogorkeria ez dala onartzekoa esan dau.

- Eaj'k lendakari barria aukeratu bear dau: Arzalluz
ala Imatz ala Egibar?

- Suedia'ko atzerri-ministroa erail dabe ganibetaz.

- Bilbao'ko egazkin-zelaian aurten %20 ugaritu dira
ibiltariak.

- Ertzain bi zauritu dabez Araba'ko Herrera alda-
pan. Lagran errian.

- Lendakaria Zarzuela'ra joan da Laterri-Gegearen
25n. urtea ospatzeko..

- Euskerea gizaldien joanean eleizan zaindu da,
baiña gaur toki askotan abestu egiten da euskeraz eta
bestea erderaz, iparraldean naiz egoaldean.

- Laterri-legearen 25n.urtean erregeak ez dau egin
itzaldirik. Gertatuta eukana gobernuak debekatu dau-
tsolako izan ei da.

- Iberia'ko egazkiñetan janariak ordaindiu egin
bearko dira.

- Eta'ren aurka gudarostea bialtzea erabagi ei eban
España'ko gebernu sozialistek.

- Ziortza'ko lekaide-etxean Iñaki Aranguren lekai-
dea il jaku.

- Lendakariaren esondapena 27'an Lege-Biltzarre-
ra: Aberria gara,etorkizuna geure esku bear dogu,
gugaz batera Napparroa ta Iparraldea nai daben neu-
rrian, gure epaikariak, eta agintaritzta eta geure norta-
suna Europa'ko laterri-arteian.

- Euskaldunak ugaritu egin dira egoaldean,baiña
urritu Napparroa'n eta Ipar-aldean.

- EAJ-PNV'k alderdi eguna ospatu dau Foronda'n:
100.000 alderdikide.

- Aita Santuak kardinal barriak egiteko konsistorioa
aurreratu egin dau. Eriotzea etoriko ete jakon bildurra
ei da.

OLAZAR' tar Martin'ek

EUSKERAZALEAK

EUSKAL ASTEA: 2003-11-24'tik 28'ra

24.- Astelena: Bertsolaritza: Bertso papelak: Legarreta'tar Asier'ek.

25.- Martitzena: Euskaleriaren buru-jabetza: Atutxa'tar Paul'ek (I).

26.- Eguastena: Abizenak: Olazar'tar Martin'ek.

27.- Eguena: Euskerearen Agiri Nagusia: Latxaga'k.

28.- Barikua: Euskalerrriaren Buru Jabetza (II) Ibarretxe'ren esondapena: Atutxa'tar Paul'ek.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

SANTXO PANTZA, AZNAR ETA GURE ONDARTZETAKO GALIPOTA

Ondarru'ko ondartzan ibiltzen naiz gora ta beera illabetez urtero. Ondarrean ibiltze ori, nere iztar traketsarentzat oso konbenigarri omen dalako.

Bada urtebete Galizi'ren sarkaldean arrolioz betetako "Prestige" izendun ontzi zaarra bere koipe ta guzti urpera joan zala.

(Orain, irakurle, sarkaldeari "mendebala" esan oi diote "elbata" zaleek. Erderakeri itxusiagorik! Tolosaldean baseritarrek "mendebala" sortaldetiko aizeari esaten diote. Baiña aizeari bakarrik. Ez sortalde berari. "Mendebala" gaztelerazko "vendaval" da. "Mendebal" = "vendaval". "Kastellano" utsa! Alare pozik artu dute elbatuzaleek erbestetiko itz ori, txit egoki dator kielako euskera "kastellinazatzen" jarraitzeko).

Gaur, ordea, ez nuan ortaz itzegin nai-ta, itzul nadin nenkarraren ildora.

Galipota, itxasoko uiñen indarra legun-legun ondarrean eze-rezten dan tokian! Nik, berriz, an ibili bear! Ta, jakiña, beste ondartzazaleek bezala, gero, zaintze-etxean usai gozozko ur orlegi batez igurtziz oiñak garbitzen ibilli bear!

Urtebete igaro eta gero!

Lotsagarria!

Errua, norena?

- Lehendabizi kapitalistena. Ain arrisksua dan gauza bat itxasoz karriatzeko, zearo ondaturik dauden ontzi zar oietaz baliatzen diralako. Sortu dezazketen kalte ta eriotzengaitik axolik ez zaie! Norbaitek esana da kameluak errezago igaro daitezkeela jostorrazaren zulotxoa-zehar kapitalistak zeruko atetik barrura sartu baiña. Ai baiña...! Gaztelarrek "arco iris" estaen dioten eta euskaraz izen asko dituan ortzadarraren azpitik igaro aal izateko ere kamelu aundiegiak dira gure kapitalista auk.

Gero, munduko Jaurlaritzena, ontzi baldartu oien itxasoan ibiltzeko baimena ematen dietelako. Ez, noski arritzeko gauza. Jaurlaritza oietako jaurleri beraiek kapitalista oietakoak bait dira! Edo ...bai behintzat kapitalista oien adiskide kutunak.

Oietakoa da Aznarr'en zuzendaritzapeko Jaurlaritza, guretzat munduko jaurlaritzen artean aluena ta kaltegarriena, Españi'ko Jaurlaritza!, naitanaiez jasan bearrean aurkitzen gera Españi'ko Jaurlaritza!

Esaidazu irakurle:

- Zer egin du Españi'ko Jaurlaritzak galipotaren arazoa konpontzeko?

- Ezer ez! Bai al da ba zerbait zuzenki egiteko gauza?

- Galdera ederra, adiskide zure galde zorrotz ori. Egin duan pixka gaizki egiten bait du: gezurra esan ugari batere lotsarik gabe, eta ontzi zarpazu ori, zekarren guzia sabelean zuala, zegoen tokitik aterata itxasoaren barrura sartu.

Asturietakoko Jaurlaritza izan da orain, -eranegun ainzuzen, Iraillaren 11'ean- agerpen baten bidez, Aznarr'en eta Fraga Iribarne'ren Jaurlaritzak egin duten guzia gaizki egiña izan dala oiukatu duana.

Ez zaio arrazoirik falta, milloika eurozko kalteak sortarazteaz gaiñera beren ezjakintasuna adierazi bai dute. Ainzuzen beren buruak jakintsu agertzearen asi zitzaizkigun "opilla nola egosi" erakusten. Eta, jakiña, irten dan bezalakoa irten zaigu opilla!!!

Zori makurreko "Prestige"ren arazoa, gure iru itxasgizonen eskuetan utzi baitute, berealaxe ta ederki konponduko zuten aukeraga. Erriko jende xea burutsuagoa bait da sarritan jende eskolatua baiña, nai aukerori ute ez.

Santxo Pantza da "kulturik gabeko" jende arruntaren eredu.

"Insula Barataria"ko jaurleri egin zutenean, iru epaiketa egin bear izan zituan. Ba...egokitasunez ezin obeak izan ziran eman zituan sententziak. Salomon Errege Jakintsuak berak ez zuan zuzenagorik eta ederragorik emango.

"Prestige"ren zoria ere iru Santxo Pantzen eskuetan utzi ba'lit, adibidez Bermeo'ko Patxikotripa, Motriko'ko Pontxobarrun ta Ondarru'ko Pelotxistorra'ren eskuetan utzi ba'lute... erri oietako ardangela batean alkartuko ziran irurak eta amaiketako eder bat egin ondorean auxe izango zan aien lan-egiteko era:

- Mutillak: "Prestige" izeneko ontzi zar orrekin zer egin asmatzeko ekarri gaituzte onera, - esango zien Pantxobabarrun'ek bere bi lagunei, ardo-trago bat egin eta, ezpañak eskumuturraz igurtziz.

Ukabillak mai gaiñean, burua eskuetan, begien aurrean zeuzkaten otzitxoetako ardoari begira gelditu ziran irurak une batez, erantzuna ardo artatik itxaron ba'lute bezala.

- Izugarria dek gure eskuetan utzi diguten arazoa. Ontzi madarikatu orren sabeleko arrolioa kanpora irtengo ba'lit ikaragarriak izango bait lirake egingo lituzken kalteak. Guk ordea...bai al dakigu arazoa au nola konpondu? Nik ez behintzat, -aitortu zuan apalki Pelotxistorrak.

- Ezta nik ere, - Pontxobabarrun'ek.

- Nik ere ez, - Patxikotripa'k.

Ixilik gelditu ziran irurak ostera berriro ontzitxoetako ardoari begira, erantzun baten zai. Baiñan ontzitxo aietatik erantzunik ez zetorkiela-ta, Pelotxistorra izan zan aurrena itzegin zuana:

- Zerbait asmatu bearko joguk ba, mutillak. Bestela iñoiz gertatu ez diran bezalakoak izango dozak etorriko zaizkigun gaitzak.

- Bai baiña...alare...guk zer egin ez dakigun ezkeroko pentsa dezagun ea irurako batek istillu auetan zer egin dakianik ezagutzen dugun, - Pelotxistorra'k.

Egon ziran unetxo batez pentsaketan, eta Patxikotripa izan zan zerbait esan ez baiña oiukatu zuana:

- Bai, mutillak, bai! Nola ez ote zait lenago gogora etorri? Ni legatzaren atzetik iparreko itxasoetan ibilia naiz ta entzunik nago noruegatarrak arazo auen konponketan yayoak dirala.

- Bai, jauna, bai. Baita olandresak ere, -Pantxobabarrun'ek.

- Jakiña ba! Ez al ziran ba jende-klase oietakoak, irureun metroz itxas-azpian zegoan Errusi'ko submarino ura argira atera zutenak?, - Pelotxistorrak.

Ixilik gelditu ziran irurak.

Oraingoan ordea ez zuten aurreko ontzitzoko ardoari begiratu bearrik izan. Bularra lasai arnasaz bete, alkarri eskuak eman, eta ezpañetan irriño alai bat zutela, batean egin zuten oi:

- Bapo, mutillak! Asmatu diagu zer egin! Deitu eiegun Olanda'ko ta Noruega'ko jende yayo oiei. Beraiek konponduko digute errez, ederki ta azkar gaiñera. Prestige nazkagarri orren arazoa!!!

- Kobratuko dute, jakiña. Baiñan ontzako urre gorritz bern pixua eskatzen ba'dute ere, ongi merezia izango dute eskatzen duten gutzia, eragoziko duten gaitzaren aldean oso merkea izango bait da eskatzen duten gutzia, – erabaki zuan Pantxobabarrun'ek.

- Bai orixe! – “errematau” zuten beste biek.

Ta, ontzitzoetan gelditzen zan ardo-ondarra zintzurra-beera bidali, ta, beste botilla bat eskatu zuten, Patxikotripa

izan zala uste dut goxoki oi u egin egin zuana:

“Maixuk! Ekarri eigin, nexka politt orrek, gure Errioxa'ko onenekotik beste botilla bat ardo.”

Aznar, ordea, eta bere Jaurlaritzako ministroak ez ziran Santxo Pantza'z oroitu.

Izan ere”De omni re scibili”, ots, “jakingarri dan orotik” jakin daitekean gutzia badakiten Jaun oiek, nola jende arlote ezjakiña-ren iritzia eskatu?

Gaiñera, gaiñera, gaiñera, nola atzeritarren aurrean España “una, grande, libre”k burua makurtu. Ez al zan ba Aznar bera, bere Jaurlaritzarekin, arazo gutziak konpontzeko naikoa?

Latiegi'tar Bixente (945.22.00.50)

GURARIZKO ALKARTEA (Ibarretxe)

(Euskalerrria ta España)

Erriak edestian sortzen joan dira eta ez dira egun batetik bestera lur-gaiñean agertu, gizaldien joanean baiño.

Lenengo agertu zana sendia izan zan, bere etxe bakarrean bizi izaten eta senideak batera zirala.

Artu-emonak naikoa ugaritu ziranean, gure artean bostgarrren gizaldi-inguruan, auzoak sortu ziran eta geienetan euren eleizea egiten eben eta santu baten babespean jarri. Oneik ziran kofradiak, erakunde xumea eta sendoa, gizaldietan iraun ebana.

Baiña auzoak be ez ziran naikoa euren arteko bear-izana irerantzuteko eta auzorik aundiarena aurrean dabela, erria sortu eben, eleiza aundiago bat gutzien artean eginda. Ori jazo zan XII gizaldi-inguruan

Or inguruan jaun agintariak uriak sortu ebezan, ormaz inguratuta erriarrak obeto zaintzeko, baiña geiago lege bereziak ezarri eta euren agintaritza ziurrago ezarteko.

Baiña erri oneik be erakunde aundiago bat bear eben, arazoak batera bideratzeko, eta orretarako erabagia artzeko bizierra osoaren alkar-jokabidea artu eben kontuan eta or sortu zan aberria edo olako zerbaite.

Gure kasuan, Bizkaia'n, olako lau errialde agertu ziran: Lur laua edo ogi-lurra eritxona (tierra de pan sembrar), Enkartaidea Abellaneda'ko batzarretan eta Durango-aldea Geredia-ga'koetan. Eta gero iru errialde oneik batu egin ziran gaurko Bizkaia sortzeko. Beste bide bateri jarraitu eutson Orozko-aldeak.

Or daukagu ba gure Bizkaia aberri lez eratuta, baiña beste errialdeak? Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Laburdi eta Zuberoa?

Errialde orreitan be antzeko bidea izan zan, baiña Euskalerrri osoa agintaritza bakar baten ardurapean eukitiko ez da iñoz izan guraririk. Gure Bixente Latiegi'k aspaldion asko aitatzen dauan “anfiktionia” ziran: Erri bat, baiña agintaritza bakar bat bagerik.

Adibide batzuk ikusteko, antzeko bidea jarraitu dabe beste erri aundi batzuk be: Juda'tarrak Dabid erregearen aurretik, leiñuetan bizi ziran, arabiarrek Maoma'ren itzaldiak entzun-arte, leiñuetan bizi ziran eta alkartu ziranean erri aundi bat sortu eben, eta ba-dakigu gaur España dan lekuan iberoak, zeltak, arebakoak, karpetanoak, lusoak, tudertanoak, eta abar bizi zirala eta orrekaz batera iparraldean euskaldunak.

Erri gutzi orreik batu egin ziran, agintariak Errege Katolikuak zirala, baiña euren eskubideak zaintzen ebezala, ez ziran alkarte orretara sartu lusoak eta euskaldunak. Dana dala, lenengo alkartasuna lortuta be, burujabetza zaindu eben. Ori geroago, borboiak etorri ziranean, galdu eben, borboiak ardatz-zaleak edo zentralistak ziralako.

Euskalerrria ez zan alkarte orretara sartu eta bere batzarrak egiten jarraitu eban, bizkaitarrak Gernika'n eta beste errialdean bakoitxak bere lekuan.

VIII gizaldian bizkaitarrok labankada larri bat izan gendun: Gudarako bear zala-ta jaun bat aukeratu gendun. Orren ezaugarri lez artu daigun Arrigorriaga'ko Jaun Zuria eta ondoren etorri ziran jaun gutziak.

Bizkai'ko jaun oneik etoi edo traidore biurtu jakuzan: Jaun aundiak ziran, España'ko erregearen lagun egin ziran eta azkenean eurretari bat ezkontzaz alkartu zan eta orduan Bizkai'ko jauna eta España'ko errega notin bat bera ziran.

Labankada orren ondorenak orain be geure gaiñera datoz.

Zelan geratu zan gauzea? Ba, gure Jauna zana geuk auke-ratzen gendun, geienetan erregea, eta kendu eta beste bat artzeko eskubidea geunkan, gaiñera bere aginduak balioko izateko Larrabetzu'ra, Aretxabalagana'ra, Gernika'ra ta Bermeo'ra etorri eta lege zarra zin egin bear eban, eta bere aginduak foru-baimena edo “pase foral” ez ba'euken ez eben balio, baiña, or egoan gaiñean España'ko erregea gure jauna.

Zelan egoan, orduan, Euskalerrria España'gaz alkartuta?

Gurarizko alkarte baten bidez. Alkartuta baiña geuk gura dogun artean. Gauzak ondo ba'doaz jarraitzeko eta txarto ba'doaz beste jaun bat artzeko eskubideagaz.

Orrean ulertzen dot nik Ibarretxe'k eskintzen dauan gurarizko alkarte.

Benetako demokraziaren oiñarria dauka, gure edestiagaz oso ondo alkartzen da eta gure eskubideak zaintzeko bidea da.

Gaiñera, Euskalerrria diran beste errialdeak era orretara sartu nai ba'dabe, iñor bear tu bagerik, etorri daitezela.

Urtenbide egokia ta zoragarria da au, arazo gutziak bideratzeko aukerea! Onartuko ete dabe españatarrak? Ez gogoz, bear ba'da beste urtenbiderik ez daukelako.

Olazar'tar Martin'ek.

GUDAN ILDAKOAK

(Markiña'n)

Agur, Jauna! Agur ta erdi.

Aspalditik nago lerro batzuk zuri idazteko gogoaz, baiña, lotsa edo bildurrez, beti be... Baiña gaur eragozpen orreik alde batera itzita, emen nago idazki apal au al dodanik ondoen zeuri idazten.

Lenengo ta bat neure aurkezpena egingo dot: Aginaga ta Barinagarrementeria'tar Miren Kasilde naz, larogeta zazpi urte daukadaz, orain bost urte,neure jaiotzetxea tamalez itzi eta San Roke egotetxetxera etorri nintzan; noz-arte, Jaun Zerukoa?

ZER aldizkariaren arpidedun naz; poz-pozik irakurten dot ba Bizkai'ko geure euskera maitiaz idatzita dagolako. Zorionak au idazten dozuenontzat.


Euskerazaintzak argitaldu dauan liburua irakurten nago: Markiña'ko sei "fusilatu"agertzen dira. Geiago ziran; liburua eginda dago baiña orri au bialtzen dot erri txiki bateri larregizko gorrotoa izan jakola ikusi dagizun. Hilario Aretxabaleta neuri lengusin baten senarra, Mallukiza neure lagunena aita, Juan Loiola Batzokiko antzezleri laguna. Orrian agertzen dan Benito neure osaba txikia; beste danak be ezagun-ezagunak eta maite-maiteak. Neuk be espetxea zer dan ba-dakit.

1926'ko jorraiaren 9'an jaio nintzan, Primo Rivera'ren diktaduran, neure gurasoak negarrez ikusi nituan eta ain samindu nintzan! Eta beti adi-adi zeozer ja-kin-naian. 36'ko gerra zikiñak erdibituta-ko bat naz: 13 urte-gaz Emakume Abertzale Batza'ko Andrakiltxua -muñekitanintzan. Zenbat gauza eroan eta ekarri nituan, iñori ezer sinistu-eragin barik!

Amaitu baiño len gauza bat esango dautzut: Guraso Jaungoikozale eta abertzale zintzoak ziran; orixe erakutsi, ikesi eta jarraitu dot: oraingo

gaztediak ez dakie: Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat. Gaur ez dago Batzokirik, gaur "Bartokiak" dira.

Aspergarri izan baiño len amaitzera noia: Uste osoa daukat irakurriko dozula idazkitxu apal au eta orregaitik aneika-milla esker emoten dautzudaz.



Biotzez agurtuten zaitu

Aginaga'tar Miren Kasilde'k.
(2003-06-08)

Oarra:

Eskerrak zeuri, Miren Kasilde, zure eskutitzak asko poztu ta adoretu gaitu (ZER)

ERRIAK BETI GOGOAN ZAITUE

Arana ta Goiri tar Sabin il zan 74 garren urtebetetzea.

D. Jose Peña-Garikano	Abadea	Fusilatua
D. Celestino Onaindia	Abadea	Fusilatua
D. Jose Sagarna	Abadea	Fusilatua
Ambrosio Malluzkia	Langilea	Fusilatua
Hilario Aretxabaleta	Langilea	Fusilatua
Jeronimo Sanchez	Langilea	Fusilatua
Bonifacio Egurrola (Agarre)	Baserritarra	Fusilatua
Juan Loyola	Langilea	Fusilatua
Ramon Murua (Txirrikiton)	Langilea	Espetxean illa
Ignacio Ugarteburu	Langilea	Espetxean illa
Benito Muñoz	Langilea	Espetxean illa

Eta ildako beste gudari ta abertzale guztiak gaitik oroi-omenaldia.

OMENALDI EGITARUA

Abenduak 11 Goizeko 11,30etan Mertzedeke Eleizan Meza izango da.

Meza au Alberto Onaindia Jaunak esango dau ta bertan itzaldia be berak egingo dau.

Ondoren 12,30etan "Eskola Laboraleko" Aretoan, itzaldia egongo da ta bertan itzleri oneik parte artuko dabe:

Juan Jose Pujana E.A.J. burukide argia eta Iñigo Agirre Aldun (Diputado) ospetsu ta gartsua.

E.A.J. - P.N.V. 'ko Uri Buru Batzarrak Markiña'ko erri danari dei egiten dautso ospakizun oneitara etorri daitela.

E.A.J

P.N.V

SALMOAK

Salmo berriak kantatzeko Doinua!

(1) *San Juan*

Javn-goi-ko Ai-ta mai-te zai-
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lla Jain-ko
se-me-a, mai-te zai-tu-gu guzti-
on Sa-ba-tzai-lla - a Javn Es-pi-ri-tu San tu-a
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla - a gu-re
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za
sor-tzen lan-gi-lla - a

24N SALMOA ZESARREK AGINTZEN DU, BEREN ERRIAN EMATEKO IZENAK

1

Erropa hauek josi zituan
amak belaunikatuta,
Josek ekarri usai onezko
belar lorek billatuta.
Usai onezko ura egin da
erropak perfumatuta,
doblatu eta jarri zituan
kaja batean sartuta.

2

Enperadore Zesar Augustok
orduan agintzen zuan.

Agindu zuan: “Izena eman
bakoitzak zuen lekuan”,
Jose santua Belen errira
juan bearrean zeguan,
Andre Mariari esana zion
berri au jakin onduan.

3

Ain triste zegoen Jose santua
Mariari entzuteko,
Ama Birjiñak erantzun zion:
“Au ez da gu estutzeko.
Agintariak daude lurrean
guri lanak agintzeko,
baiñan gorago dago Jainkoa
beti guri laguntzeko”.

4

Ama Birjiñak oroitzen zuan
igarleak len esana:
Kristo Mesias izango zala
Belenen jaioko zana.
Baiñan Joseri etzion esan,
zan ixilik zedukana.
Josek galdetu: “Zer da nik orain
jokatu bear dedana?”.

5

Josek nai zuan Jaunagandik
bere naia jakitea,
erantzun zien: “Nere naia
Joxerekin zu juatea.
Ni izango naiz zurekin
zu zera nere maitea;
zugana dator naigabek, lan
nai det lagun izatea”.

6

Jose santua konformatu
Marian esanarekin,
erropan kaja eramateko
amak artzendu berekin.
Danak juan ziran beren
bakoitzan astoarekin,
asko kostata nekez etorri
zan Jose astoarekin.

7

Artu zituan ogia, fruta,
arrai batzuek jateko.
Bost eguneko bidea zeuken
Belen errira juateko.
Ama Birjiñak argiz au zioen
“Zuaz nekez etortzeko”,
ta enkargatu zuen etxea
etorri arte zaitzeko.

8

Ama Birjiña aingeruaren
Erregiña zan munduan
milla aingeru goardakoak
beti berekin zituan.
Beatzi milla aingeru Aitak
orain ipiñi onduan,
ta beste asko serbitzariak
jetxi ta igotzezuan.

25N SALMOA: JOSE ETA MARIA BELENERA BIDEAN**1**

Atera ziran Nazaretetik
Belen errira joateko.
Josek Maria astuan artu
zuala eramateko.
Esana zion: “Mantso jungo naiz
zu obeto izateko”.
Aingeru danak ere juan ziran
bidean lagundutzeko.

2

Aingeru danak alai juan ziran
Erregiñakin batean,
Jainko-gizona adoratuaz
abesti goxoz betean.
Maria eta Jose pozturik
aingeruk an ikustean,
gau illunetan argitzen zuen
ostatura juan artean.

3

Eldu ziraden ostatu-etxe
batean lo egitera,
dana betean zegoan eta
arte-txoko bat artzera.
Jauna abesten zuan Mariak
aingeruakin batera,
au ikustean Jose pozikan
eldu zan loak artzera.

4

Beste ostatu batzuetara
juanda gaua pasatzera,
etzeukatela lekurik eta
biurtzen ziran atzera,
beste batzutan itz gogorrakin
atetik biraldutzero;
Ama Birjiña biurtutzen zan
berentzat errezatzera.

5

Inpernurako ziran animak
jartzen zuen saminduta,
bere gorputza min aundiakin
indar gabe geldituta.
Asko alditan indartzen zuen
aingeruak lagunduta,
Ama Birjiña aingeru onak
beren besotan artuta.

6

Eldu ziraden Belen errira
bostgarrengo egunean,
arratsaldeko laurak ziraden
illuntzen asi zanean.

Beren lengusu famelitarra
artu etzituenean,
kale askuak ostatu billa
pasa zituen gaubean.

7

Eldu ziraden beatzitara
gaubez ta otzak zeudela,
Jose santuak emazteari
esana zion onela:
“Misterion bat daukagu emen
zaude iñor ez bezela,
akordatzen naiz beste aldean
kueba bat dagoela”.

8

Leku auxe zan Aita Jainkoa
Semearentzat zeukana,
bakardadean eta pobrezan
Eleiza biurtu zana.
Sartu ziraden Ama Birjiña
Santu Joserekin juana,
amar milla aingeru juan ziran
argitzen estalpe ura.

26N SALMOA: JESUKRIS-TOREN JAIOTZA**1**

Danen artean laister izan zan
estalpea garbitua,
Josek Maria berotutzeko
jartzen du sua piztua.
Ama Birjiña pozez zeguan
maitasun aundiz sutua,
gogorik gabe apaldu zuan,
Josek zion agindua.

2

Emen lurrean ardi-aska bat
zabal samrra zeguan,
Josek Maria aska onetan
tapatu zuan orduan.
Jose txokoan otoitz egiten
extasis-ek artu zuan,
lo goxotikan esnaratu zan
Mariak deitu onduan.

3

Birjiña Irutasunakin bat
belauniko zeguala,
oiñaze gabe jaio zan Jauna
Birjiña gelditzen zala.
San Migel eta San Gabrieli
artuta amak zeukala,

Joseri deitu, adotatuta
oiaiez bildu zuala.

4

Birjiña au zan gazte azia,
amabost urte zituan,
eta bost milla urte ta geio
mundu onek bazituan;
beatzireunda larogei eta
emeretzigarreguan;
Jesus jaio zan igande batez
ogei ta lau abenduan.

5

Amak ipiñi zuan Semea
faja oiaiez bilduta,
aska barruan, lasto gaiñean,
arri otza tapatuta.
Kanpoan zebillen idi bat jun
ta estalpera sartuta,
ikusi zuan beren astua,
jarri zan urreratuta.

6

Ama Birjiñak agindu zuan
Jauna adoratutzeko,
asko izan zan au entzutean
biek belaunikatzeko.
Beren arnasa lagun izan
Aurra askan berotzeko,
gizonak eman nai etzien
eman zien bizitzeko.

7

Ama Birjiñak eskatu zion
San Miguel aingeruari:
“Mesias Jauna jaio zaigula
esan aita ta amari”.
Esana zien linboan zeuden
Joakin eta Amari,
erantzun zien: “Zorionak eman
gure partetik berari”.

8

Jaunak biraldu Santu Gabriel
artzaiari esatera,
Salbatzaillea jaio zalako
berri onak ematera.
Beste aingeru-tropa aundi bat
agertu zan abestera:
“Aintza Jaunari zeruan eta
pakea gizon artera”.

**Aldalur´tar Justiñe
Lekaine Klaratarra
(Gazteiz´en)**

ITURRIA

Basauntzak iturri otza, erleak lorea maite, diño euskal abesti zarrak. Emen, egi aundi bat ikusten dogu, egi ederra, bizia emoten dauan berba maitegarria. Abereak, erleak ta giza semeak, guztiak doaz iturri edo loreatar.

Lenengoz, goazen mendietara. Ederrak dira izan be mendiak, arizti ta pagadi ederrak, tarteka-tarteka, zelai orlegiekin. An dabiltez basauntzak, zelairik zelai, eguzki ederretan bedar jaten, biziagaitik lan egiten. Euren dabe inguru guztia, zelaietako bedarra, zugatzetako, arkaitz arteetako bedar gozoak. Jaun eta jabe dabiltez iputika, saltoka, pozez beterik eguzkiaren printze gorrien artean.

Antxe izaten dute euren bizi alaitasuna, ume-aroak, umeka azteko pozak. Bene benetan zoragarria da, basauntzak aitz arte ta aitz puntetan ikustea... Gizonik ibili ezin daiteken tokietan, basauntzak artista batzuen antzera, arkaitzitik arkaitz, saltoka dabilte umore onean. Baiña nozik bein, arek egarri dira ta arkaitz arteko iturri otz ta gardenera doaz gorputzaren egarria asetzera. Ura burua makurtuta edaten dabe ta origaitik, gero, burua gora jasoten dabe Bibliak esaten dauan antzera... Burua makurtuta, ura edan eben, origaitik gero, burua gora jaso eben.

Abestia astuta, bertan bera, itzi baiño, goazen erleetara. Nork ez ditu maite somorro txiki langille orrek... Uda-

barri, uda ta uda goien, denbora guzti ortan, langille asper bageak dira. Lorarik lore erlien antzera, nor este dabil bizitza guztian... Goizetik gabera orduak zenbatu barik, ezti-gaia batzen bizitza billa. Ta gero alegin guztiz erlauntzean eratu daben ezti, gizonak kenduko dautse umientzat, gaisoentzat nai nagusien janarientzat.

Baiña erlea be egarritu egiten da. Mendi arteko erreka txikietara joaten ba-zara, eguzki berotan, antxe, ikusiko dituzu erle gorriak arri egaletan ura edaten ta indar barriak artzen. Egarrria bizi guztien leia da. Ur barik mendiak, zugatzak,, aldapa ta zelaiak igertu egiten dira.

Danetan egarri nagusidunenak geu personak gara. Gorputzak uraren egarria dauka, baita ardauarena be ta bizi izateko bearrezkoak ditu iturriak, maastiak ta abar... Baiña gizon zurrak beste egarri zoragarriko bat dauka, beti bizi izateko egarria. Au ezin giñaike iñola gugandik alderatu... Biziak beragaz daroa egarri ezilkor au.

Ta egarri orren egia, Kurutzean il ta berbiztu zan Jesus'ek, argi ta garbi, euskaldunak esan oi daben legez, geure begien aurrean azalduta itzi euskun. Bizi bedi ta sendatu bedi betiko biziaren egarri ori, itxaropena ta poza izan dagiguzan bizitza onetan.

Paulin

IÑAKI ARANGUREN KAREAGA, ZIORTZA 'KO LEKAIDEA IL DA

Pozez beterik artu doguz gure Bizkaia'n lekaide Zistertarrak, euren ekarle Elgezabal' dar Patxi zistertarra izan dogula.

Lekaide-etxe bat ondo oiñarrituta dagoala jakiteko ezaugarria, lekaide bateri bertan lurra emotea izaten ei da. Ori bete da irail onen 22n. egunean,



Iñaki Aranguren Careaga

(Fraile Zistertar)
(Goian bego)

Bilbon hil zan atzo, 2003ko irailaren 21an, 81 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

Bere anai-arreba, Juan Antonio, Sor Miren (†) (Karitateko alaba) eta Garbiñe; koinata, Margarita Mugica; loba, lehengusu-lehengusina eta beste senideak.

(Finerria: Leo-Artibel. Tel. 94 683 09 60. Markina-Xarrein)

Hileta

GAUR,
astelehena, 22
Arratsaldeko
6,00etan
ZIORTZAko
Monasterioa

Aranguren' dar Iñaki'ri lurra emon dautsagunean: Rikardo gure gotzain jauna izan zan meza-emoille eta inguruan, 50 abaderen artean, sei lekaide-etxetako abatak, Oliba'ko Zisterera joan zan eta andik Galizia'ko El Sobrado'ra, eta emengo lekaidea izatea itzi bagerik etorri zan Ziortza'ra. Altzaimer gaisoak eroan dausku epe labur batean. (G.B.).

BERTSO BAT ZUENTZAT

“Ama Birjiña lagun eiezu jende arreri benetan, zure eskua eman eiezu eguneroko lanetan, bere biotzak indartu Ama ez erortzeko neketan. Gero zerura eraman danok Ama zure besoetan.

Sor Justina Aldalur
Lekaime Klaratarrak (Gazteizen)

Olazar'tar Martin'ek

LEGE ZARRA

LEGE ZARRA (8): ZIGOR-AUZIAK ETA EPAIKARIAK

I LEGEA: NOZ AUZIPERATU ETA ATXILLOTU LEGE-AUSLEAK, DEI BARIK.

Lenengo esan eben: Edozein gaztekeri dala-ta, ez Jaun aundiak eta ez epaikeriak ezin dabe billaketarik egin kasu oneik izan ezik: Ostutea, bortxatzea, erbestekoa iltea, eskeko agurleak, emakume lotsabakoak, liburu zantarren antzera kantaka dabiltzenak, estalgilleak, aztiak, fede-ukatzailleak, erregearen aurkalariak...Onelangoak izan ezkerro, billatu eta atxillotu leikez, ogeita amar egunen barruan, Gernika'ko zugazpean deitu barik, eta atxillotu ezin ba'dira, zugazpera deia egin.

II LEGEA: GUZURREZKO LEKUKOEN AUZIA.

Baita: Guzurrezko lekukoak eta koipekeriz erosten dabenak epaikariak epaitu dagizala, lekukoak berak autortzen ba'dau, eta bere buruaren alde entzun dakio-la.

III LEGEA: BIRAOLARIEN AURKA ZELAN JOKATU.

Baita: Jaungoikoaren eta santuen aurkako biraolariak atxillotu leitekez eta zigorra ogeita amar eguneko espetxea izango da.

IV: BIRAOLARIAK ETA UKATZAILLEAK ZELAN ESPETXERATU.

Baita: Biraolarien eta ukatzailleen aurka epaikariak jokatu lei, baiña espetxea ogeita amar egunetik gorakoa ba'lit, ezin daike atxillotu zugazpera deitu bagerik.

V: ZEIN EPAIKARIK EPAITU DAIKEN ZIGOR AUZIETAN.

Baita esan eben: Foru-alkate dan iñok ezin daikela zigor auzirik epaitu, Bizkai'ko korrejidoreak eta onen ordezkari nagusiak baiño, bakoitzak bere lekuan eta bere aginte-barrutian.

VI: LEGEA: FORU-ALKATEAK ESKARIAK ONARTU BEAR DABEZ.

Baita esan eben: Foru-alkateak euren auzitegietan eskribauen idazkiak onartu dagiezela. Izenpetuta etorri ezkerro, bestela ez, bosteun marairen eskakizuna edo andik beerakoa ez ba'da.

LEGE ZARRA (9): SALAKUNTZETAN ZELAN JOKATU

I LEGEA: ZIGOR-AZIETAKO SALAKUNTZAK ZELAN EGIN.

Lenengo esan eben: Edozein gatzakeri dala-ta, iñork ezin lei iñor beronen izenaz salatu, giztakeria salatu baiño. Salatua nortzuk diran esan barik, eta besterik ez dau artuko korrejidoreak auzirako eta artzen ba'dau, utsa izango da.

II LEGEA: ARGIBIDEAK ZELAN JASO.

Onelako salakuntzak etorri ezkerro, egiztagarrik ez ba'dago, lege-austea aundia izanda be, salatariak izendatzen dauanak egiztagarriak beti egizkoak izaten ez dirala, eta ortik kalte aundiak etorri dira, lekukoentzat oiñazerik ez dagoalako, korrejidoreak eskatu dagiala lege-gizon bat ekartea eta biak zin egin, eta ez dagitsela beste iñori arazoa agertu, ortik eriotza, naiz gorputz-zatiren bat ebagitea, naiz odola isurtzea naiz zigorkadak artzea naiz betirako erbesteratzea etorri daitekelako. Lekukoak aztertzen diranean epaikaria bertan izan daitela eta lekukoak gatzelerarik ez ba'daki, beste artzaille batek aztertu dagiala eta itzulpena egin.

III LEGEA: NOIZ AGINDU LEGE-AUSLEARI ETORTEKO ETA ESPETXERATU.

Baita esan eben: Argibideak ikusita gero, bear dan beste ez diralako, epaikariak zugazpera ez dau deitzen, bere aurrera etortzeko agindu baiño. Eta sarritan espetxera sartzen dau, baiña iñor ezin daike espetxeratu zugazpera deia egin barik.

IV LEGEA:

Baita esan eben: Edozein gaztakeri egiten danean, epaikariak onelantxe jokatu bear dauala.

V: LEGE-AUSLEARI DEIA ETA URRIN BA'DAGO, ZELAN JOKATU.

Errudunak ezin leitekez atxillotu, dei-epaia emon baiño, ogeita amar egunen barruan, eta amarna eguneko espetan, Gernika'ko zugazpera deituta, euren buruak zuritu dagiezan, zemai au egiten jakela: atzerriratu egin-go dirala. Eta gaiztakeria egin eta ogeita lau orduren barruan arrapatu ba'dabe, atxillotu daiteke, dei barik; baita erbestean dagozenak zugazpera deitu barik atxillotu leikez edozein gaiztakerigaitik eta edozein alditan, alde egingo dabelako susmoa ba'dago; horrela atxillotu azti eta sorgiñak, emakumea indarrez daroenak, baiña koipekeriz neskea galtzen dauana ez.

VI: NORK DEITU GAIZKILLEARI GERNIKA'KO ZUGAZPERA ETA ZELAN SARIA.

Baita: Prestameruak Gernika'ko zugazpera dei egin-da, an erri-eskribauaren aurrean epaia iragarri eta dei egin Bizkai'ko erri-espetxe batera aurkeztu daiten zemaiak eginda eta dei au egiteagatik prestameruak ogeita lau marai eskuratuko ditu merinoa ba'da amabi, eta eskribauak be bere saria artu dagiala.

VII LEGEA: DEIA EGIN DALA ZELAN ADIERAZO.

Baita: Deia eginda gero, deiaren agiria salatariari emon bekio eta salatuaren erriko eleizako ateetan ipiñi deia, domekaz eta mesa nagusi bitartean eta hamabost egun barruan, eta agertzen ez ba'da eurai jakinerazo eta orrelan egiten ez ba'da deia utsa izan daitela.

VIII LEGEA: DEIA EGIN JAKEN GUZTIAI ADIERAO.

Baita: Deituak asko ba'dira, obenak zigortu barik gel-ditu ez daitezcan, salatuak diran lekuetako eleizetan, esane-ko epe-barruan ipiñi eta salatariak eurai adierazo.

IX LEGEA: BIZKAITARRAI IÑIN EZIN DAIKIOE OÑAZERIK EZARRI.

Baita esan eben: Bizkaitarrak geienak leiñargiak diranez, eta Bizkaia askea eta lege bereziduna danez, iñoz ezin jakola oiñazerik ezarri, epaikariak be ez, ez Bizkaia'n eta ez beste iñon, ez oiñazerik eta ez onetarako zemairik, fede-ukatzegaitik, edo erregearen kalteko pekatua izan ezik.

X LEGEA: SUSMOAKAITIK NOIZ EPAITU LEIKEN.

Baita esan eben: Bizkaian mendi ta bakarleku asko dagozalako, eta oiñazerik ez ezarteko legea daukalako, txarkeri asko egin leikez eskutuan eskutuko lege-austea danean, gaizkilleari, aitonon semea ez danean, bidez eta legez oiñazea ezarteko beste susmo dagoanean, susmoak naikoa litzakez bizkaitar bateri zigorra ezarteko, berezko eriotzea emoteraiño be bai.

XI LEGEA: ERRI AUZIETAN IÑOZ BE EZ BETIRAKO LEKUKORIK EKARRI.

Baita esan eben: Lekukoai egia aterateko oiñazerik ez dagoalako, egiaren aurkako autor-egiteak asko izaten dira gorrotz naiz diru-ordez, eta epaikariak be erreze-ko onartzen dauz olako salakuntzak epaikariak markuberak diralako, orregaitik auxa artzen da lege lez: betirako egiztabiderik ez dagiala onartu epaikariak eta auzi-liburua beingoan erre dagiala.

Olazar'tar Martin'ek



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

ABIZENAK

IBARGUEN: “Ibar-” lurralde , zelaia da eta “-guen” “-goien”etik teoría. Bien artean “Ibarraren goi-aldean” dagon etxea edo soloa. Zeanurin dago etxe bat eta Fruniz’en beste bat. Gero jauntxu ganboatarren artean zabal. 1397n. urtean Getariar baten abizena. Azkoitian 1415.

IBARGUTXI: Ubidean dago geien eta andik zabaldu da Zeanurira ta Legazpira. Ibar txikia esan nai du.

IBARLUZEA: Azpeitian eta Arrasaten, Gipuzkoan, eta Markiña-aldeetik zabaldua Bizkaian. Arrasaten 1535, Azpeitian 1624.

IBARZABAL: Gipuzkoan zabal eta Bizkaian be asko. Be-aldeko lur zelai zabala esan nai dau. Eibarren 1624.

IBARRA: Bizkaian erririk geinetan dago auzoren bat eta Gipuzkoan: Eibar’en bi, goikoa eta bekoa, eta erri askotan. Araban Aiala-aldean eta Benabarran, Nabarra’ko Leizan. Be-aldean dagoan lur zelaia da. Elgeta 1491.

IBARROLA: Aialan eta Bizkaian . Ibar asko dagoan tokia, baiña ibarreko olea? Getaria 1391.

IBISATE: Laminoria Araban. “Ibi-” erreka da eta “-ate” sartzeko oinbidea. Balladolid 1789.

IKAZA: Erandion. Iko-landarak dagozen lekua. Eorrio 1680.

IKAZTEGIETA: Tolosan eta Bizkaiko Arrietan. “Ikatza dagon lekuak”. Tolosan 1346.

IZETA: Aian bi, garaikoa ta azpikoa. “Izai” erdarazko “abeto” da eta “Izeta” olakoak dagozen lekua. Edo izak (junko) dagozen lekua: “Juncal”. Getarian 1474.

IDIGORAS: Gipuzkoan, andik Bizkaira: Ira-arloaren goiena esan nai dau. Oñaten 1348.

IDOIAGA: Gipuzkoan eta Bizkaiko ereñon. Irak dagoan lekua. Idoi: Nabarra 1279.

IGARTUA: Gatican eta Zeanurin. Legortua edo sika-tua esan nai dau. Ondarribin 1661.

ILLARRAMENDI: Tolosan iru: goikoa, bekoa ta erdikoa. Otez beterik dagoan mendia esan nai dau. Isasti. 1625.

IMATZ: Lenengo Lazkaon eta gero Durangon. Mimenak dagoan lekua da eta Oñaten agertzen da 1596n. urtean.

INTXAURRAGA: Abizena Zeanurin eta etxea Fikan. Intxaur-landarak dagoan lekua esan nai dau. Bilbaon 1785.

INTXAURBE: Orzokon eta Arratian. Intxaur-landarearen azpian esan nai dau eta Bilbaon 1769 agertu.

INTXAUSTI: Natxitun, Algortan, Gatican eta Gipuzkoan zabal. Intxaur-landara asko dagon lekua da. Balladolid ‘en 1614.

INDURAIN: Naparroan zabaldua. Andurain’etik teoría da. Bedar-lekuaren gainean esan nai dau.

INTZA: Berastegin. “Inz” edo “junko”ak dagoan lekua. Urretxun 1620.

IPARRAGIRRE: Irun’en asi eta Gipuzkoa guztian. Elorrioren be bai. Iparrera zabalik dagoan etxea edo iparraldeko bedar-lekua. Donostian 1566.

IPIÑA: Zeanurin eta Arratian. Gamiz’en be bai.”Mimena dagon lekua” esan gura dau. Len “Ipiñaga”.

IRATXE: Naparroan. Irea edo irecta.

IRAOLA: Gipuzkoan zabal, Bizkaian gitxi. Ira asko dagoan lekua esan gura dau. Azpeitian 1603.

IRAOLAGOITIA: Gipuzkoan eta Markiña-aldean. Iraola etxearen goitik dagoana. Elgetan 1787.

IRARAGORRI: Gipuzkoatik Bizkaira etorria. Tolosan 1625. “Irrara-“ otea da eta “-gorri-“ utsa edo margoa. Eibar’en 1615.

OTO ETA POTOTO

TOKI

Soldaduzkan lagun onak egin ei dira eta orretariko bat egin eban Oto'k. Bai, ba beti egoan prest edonori laguntzeko eta ortik lortu eban lagun mina, Don Terencio, Andaluzi aldean lur-alde zabalen jaubea.

Udara beroak Andaluzia'n eta Donostian etxea egiteko asmoa eukan Don Terenzio'k. Egin be bai. Oso polita. Oto joan zan Bizitaldi bat egiñez, etxea ikustera.

Bai ondo estimatu Don Terencio'k.

- Etxe hederá egin dezu.
- Atsegin al zaizu?
- Asko gustatu be.
- Izena ipiñi nai deusot eta ez dakit nundik asi...
- Ba, ingurutik asi.
- Eta, inguruan zer ikusten da?
- Malda onetan or daukazu, zure etze aurrean, Toki-eder.
- Ba, ala da.
- Aldamenean Toki-alai; atzean, Toki-goxo; aurrerago, Toki-argi...
- Orduan, badakit zer izen imiñi!
- Zer izen?
- Toki el timbre!

ANDRE GAXO

Oraindik gazte eta joan ziran Oto ta Pototo Donosti'ra egun-pasa. Bakoitza beure aldetik ebiltzan.

Alako batean, or gure Oto Avenidako kafe baten atarian, neska ilegorri batekin. Neska atsegina, alan be.

Ori ikustean, Pototo pentsakizunetan egoan, nolan Oto'ri neska ori arrapatu. Burua argüí, gertu da Oto'rengana eta belarrira onela esan Deusto:

-Txo, eure andrea automobillak arrapatu jok eta oraintxen jarioek hospitalera...!

Jeiki da maaitik Oto eta or doia korrika eta larri, arnasa artu eziñik. Eldu da hospitalera. Jo dau atea... Mojatxuak:

-Zer nai...?

-Baaa...

Oto'k atz buruari, berekiko onela esanaz:

-Bañan... Nik ez ba'daukot andrerik...?

KUXKURTUTA

Sanpedro egun ura beroa zan benetan!

Kostaaldera bueltatxo bat emotea erabaki eben bai Oto'k eta bai Pototo'k. Anoaia, be (tortilla patatakin) eruan eben pardeltxo batean. Urte asko dira eta orduan egoten ziran ondartzetan egurrezko txabolatxoak lau kurpillen gañean, norberen burua jantzi eta erazteko.

Sartun dira bakoitza bere txabolatxoan igarirako praka txikiak jazteko, kaleko erropak jaztera. Pototo bereala-koan zan kanpoan. Ondartza gañean etzanda, lasai atera zuan zigarrotxo bat erretzeko...

Zer patzada ederra...

Aures-aurre, itxaso urdin zabala eta bere aize meea...

-Zenbat gari erein zitekean, a dana lurra b'litz...?

Ustegabeen erre ebazan sei zigarro...Orduantxe kon-
turatu Oto ez zala oraindik bere txabolatik urten... Ger-
turatu zan txabolara eta atean kox-kox jo eban;

- Zer dok, Oto, hainbeste denbora or barruan irauteko?

Txabola zokotik Oto'ren berba apal indargea, il-
zorian dagoaren itza:

-Emen nago lurrean kuskurturik, nere burua zuzendu
eziñik...!

- Zelan gertatu zak...?

- Urak kuskurtu mau oial berri baten antzera.

- Gaizki al dago?

- Bai. Atera nauk emendik lenbailen!

Bultzara bategaz eragin eban Pototo'k atea... An
egoan Oto baztarrean, bil-bil eginda pelota baten antzera,
okotzak in belaunak jotzen ebazala...

- Bañan...zer dok?!

- Jakin ez! Ezin dot neure bururik zuzendu...!Zain
guztiak bilduta dodaz, urak eraginda edo...!

Tximistak artuta bezala, jo dau erriko hospitalera, sen-
dagile-billa.

- Jauna, nere lagun bat daukat larri ondartzako txabo-
la batean...Tripetako operazioren bat izango dau, bear
ba'da...

- Anbulantzia bat bilatzera noia... Bitartean kirofanoa
prestatuko dogu...

Laister ziran sendagillearen morroiak Oto'ren txabo-
lan. Zerraldo batena kontuz imiñi, automobilean sartun
eta badoiaz kaleetan zear txistuka, martxa guztian hospi-
taleraño. Gauza guztiak prest, gaxoaren zai. Sartu dabe
kirofanoan...

Kirofano-aurreko gelan, Potot batetik bestera, jira ta
bira, larri ebillen, kaiolan sartundako leoiaren antzera...
Ara nun sendagillea begietatik tximistak dariola:

- Nork ekarri dau gizon au?

- Neuk, jauna.

- Zergaitik!!!???

- Gaizki egon da...

- Gaizki!!!???

- Bai, jauna...okertuta...zutitu eziñik...

- Okertuta? Zuzenduko zan kantzontzilloko botoia alkan-
doraren lehengo zuloan sartun ez ba'lu. Fuera! Kanpora!

MOTORISTA ARRO

Arropuztuta ebilen Oto. Pototo'ren inbirian berak be
motor indartsu bat erosi eban... Eta motoak ebazan paro-
lak!? Arrek bai parol argitsuak...! Gau-zulo illunean,
argi-erraiñu eguzkitsuak zirudien.

Oto'ren poza gau beltzean, kamiñoan zear, argi bizi-
bizia bere aurretik ebal...Aurrera diolal, ara bere
aurrean, bere motorraren antzeko beste bi parol...

-Ene...!Nere antzeko beste bi moto...!Erditik pasako
naz!

Pum...!!!

Bi parol arrek kamio zaar batenak ziran. Sei ilabete
hospitallean.

Anes Arrinda
Deba. 1968

ORTIZ DE ZARATE JUAN

Orduña'n jaioa zan eta gazte zala joan zan Peru'ra Ortiz de Zarate.

Bolibia'n abere-azkuntzan lana ondo egin ebalako eta meatzak billatzen zurra zala agertu ebalako, oso aberats biurtu zan, Amerika guztian aberatsenetarioka. Dana eralgi eban billaketan.

1564n. urtean Peru'ko Errge-Orde egin eben.

Madrid'era urreratu zan bere izendapena ziurtatzeko. Amerkitera biurtu eta billaketa aundiak egin ebazan eta Rio de Plata'rañño eldu zan 1572n. urtean bost itxasontzi eta 500 gizon beragaz eroazala.

Paraguai aberez eta notiñez beteteko alegin aundia egin eban.

Il aurretik artuta eukan lau uri irasteko agindua betenai izan eban, bat Buenos Aires, baiña ezin.

Rio de Plata'ri Bixkai Barri izena ipiñi gura izan euson, bizkaitarrak izan daitezana. Asuncion'en il zan 1575n, urtean.

JUAN DE GARAI

Garai'ko Juan Orduña'n jaio zan 1528n. urtean sendi apal eta bizkaizale baten, Ortiz de Zarate sendiagaz zerkusua eukala. Etxea erre egin jaken eta Burgos'ko Villalba de Losa'ra joan zan bizi izaten. Ez dakigu nortzuk izan ziran bere gurasoak. Ortik sortu ziran zalantzak Orduña'koa ete zan, baiña argi geratu zan ori 1980n. urtean Laurak Bat'ek Buenos Aires'en egin eban jaijan.

1543n, urtean joan zan Ameriketara Ortiz de Zarate bere osaba biakaz eta lurak billatzen asi zan Peru'tik Rio de Plata'ra bitarte guztian. Eta Arjentina'n dan uririk zarrena Santiago de Estero irasi eban. Beste uri batzuk irasten be kideko izan zan.

Santa Cruz de la Sierra'n errejidore izan zan eta antxe ezkondu zan Isabel Bezerra Mendoza'gaz.

1568n. urtean zezeillaren 2n. egunean bere sendiagaz Asuncion'era joan zan portu bat egiteko eta Santa Fe de Vera Cruz uria irasi eban Parana ibaiaren ondoan.

Ortiz de Zarate ilten egoala, urreratu jakon Garai eta bere alaba bakarraren zaintzaile izendatu eban eta onen senarrak Kapitai Nagusi izendatu eban Garaik, gainera Asuncion'eko eta Rio de Plata inguruko jaurle eta Buenos Aires biztanlez beteteko eta ber-irasteko agindua emon eutson 1578n. urtean. Txile'gaz eta Peru'gaz artu-emonetarako kaia zan au: Dirua ta biztanleak bialdu ebazan Asuncion uritik eta joaten diranai mezedeak eta lurak eskintzen eutsezana eta asko goratzen eban lurralde barri ori. Asko joan ziran, bertakoak eta españatarrak, abereak be bialdu ebazan eta azken-iraspena 1580n. urteko bagillaren 11n. egunean egin zan, asikerako iraspena baiño legua-erdi iparrerago.

Laster asi zan Garai lenengo lanak egiten: uria irasana dala aldarrikatu, 66 lur-zati banatu etorrien artean, sendotu eta lenengo udal-batza izendatu. Buenos Aires munduko uri ospetsuen artean ospetsuenetariko bat izango zan.

Beragaz ara joan ziranen artean 11 ziran españatarrak, baiña onein artean 4 euskaldunak. Bat alkatea eta iru udalkideak. Asko ziran kriolloak, euskaldunen umeak.

Garai'ko Juan il zanean, 1583n. urtean, Rodrigo Ortiz de Zarate izendatu eben arduradun,

Uria laster azi zan eta XVII gizaldian 6000 biztanle eukazan eta garrantzi aundiko kaia zan. Ara joaten ziran euskaldunik geienak.

Garai'ren azkena larria izan zan: 1583n. urtean martiaren 20n. egunean lagunakaz Txile'rantza joiala, inditarrak il eben.

MENDIETA'TAR JERONIMO (LEKAIDEA)

Gazteiz'en jaio zan, 1525n. urtean, Aita irutan ezkondu zan eta berrogei seme-alaba izan abazan, gazteena Jeronimo.

Frantziskotarren jantzia artu eban Bilbao'ko lekaide-etxean eta an ikasi eban teolojia eta giza-jakintza, gero Kantabria'n osotu ebazan ikasketak eta andik Mexico'ra joan zan ara 1554n. urteko bagillaren 24n. egunean eltzeko.

Ango izkuntza ikasten asi zan eta ain arin ikasi eban ze, "miraria geiago zala uste eben alegiña baiño". Laster asi zan Barri Ona zabaltzen.

1564n. urtean Olarte'tar Diego goi-gotzainak idazkari ta lagun lez artu eban eta iru urtetan asko ibilli bear izan eban, eta gainera aolkulari lana egin eban ango frantziskotarren artean. Eskutitz asko idatzi bear izan eban, baiña garrantzitsuena II Felipe'ri 1565n. urtean urrillaren 8n. egunean egiña da: 24 gai agertzen dauz inditarren alde eta Mexiko ondo jaurtzeko.

1566n. urtean lekaideen ateratako irakasle izendatu eben eta urrengo urtean etxezain. Gero erki-buru izendatu eta Nabarro'tar Mikel'n laguntzaille egin eben.

1570n. urtean biak joan ziran Florentzia'n izan zan euren lekaide-batzarrera, baiña Mendieta bidean gaisotu eta Gazteiz'ko lekaide-etxean geratu zan. Eta erdiugarte onetan betiko gertazea nai eban. Nagusiak Mexico'ra barrero joateko agindu eta eskari bereizi bat egin eutson: Mexiko'n frantziskotarrak egin eben lanaren edestia idazteko.

Laster asi zan jakin bearrekoak batzen agiritegi ta liburutegietan, baiña bearrezko artzai-lanak ez eutsoen astirik izten. Urdailleko gaiso batek eroan eban beste mundura 1604n. urteko orrillaren 9n. egunean. Bere idaz-lanik onena "Historia eclesiastica indiana" da eta 1870n. urtean argitaratu eban Joakin Garcia Ikobaltzeta'k.

EUSKAL LITERATURA NAFARROAN

AA!! Ikusi bear zenuten berrogei gaztetxo nafartar "Salon del Trono" elegantean beraien diploma eskutan zutela, nola zeuden arro, arro, San Juan egunean.

Ikasturte bateko uzta ederra zen ura.

Denak pozik eta kontento, beraien guraso eta irakasleak ondoan zituztela, Ezkuntza Kontseilari eta zuzendarien eskutik sariak jasotzen. 2002-2003 ikasturteko emaitza onak izan dira literaturan: ipuina, narratiba eta poesia modalitatean zazpireun idazlan agertu dira, leen ezkuntza eta batxilergorainoko ikasleen artean.

Eta Nafarroako erri diferenteekoak: Goizuetatik Tafalla eta Lizarraraino.

Etnologian berriz, amalau idazlan grabatuak, auek, leenagoko oituretan eta bizimoduan oinarrituak.

Eta irakurmen eta deklamazioan berriz, bertze 14 lan grabatuak.

Denak itz politikak eta ikusgarriak dira.

Ikusi bear da zenbatekoa den aien irudimena eta bizitasuna, adibide bezala, jarriko dizkizuet, "Garces de los Fayos" Tafalla ikastolako ikasle den Maitane Casalek, 14 urteko neskatoak, egindako bertso batzuk.

Eranskina

2002-2003 Ikasturtea

Irakurmena eta Deklamazio Leiaketa "Pedro Diez de Ultzurrun"

Leen Ezkuntza - Bigarren Zikloa

Saritua:

Taldea: "Onenak"

Ikastetxea: Etxarri - Aranezko "San Donato" I.P.

Leen Ezkuntza - Irugarren Zikloa

Saritua:

Taldea: "Hixtegi"

Ikastetxea: Leitzako "Erleta" I.P.

Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza - Leen Zikloa

Saritua:

Taldea: "Askatasuna"

Ikastetxea: Burlatako "Askatasuna" DBHI

TXORIA ETA LARROSA

Txoria eta larrosa nigar batean daude

Bata bestearen aurrean, ezer esan gabe.

Txorien begietatik zilarra isurtzen da.

Larrosaren ostoa zimeldu egiten dira

Egaztiak kantu biurtu du bere agonia, kantari azaltzen du onen zergatia.

- Ene larrosa maitea, zure tristura bada bekatuen artean andiena.

Nola tristetu daiteke kreatura guztien artean ederrena?

- Nik ditudan arrozaiak, aldiz, bai pisutsuak!

Inoiz ez naiz izango zu bezain koloretsua!

- Koloreak? -esan zen arosak gero eta zimelagozertarako balio dute lurrean preso banago?

Zurea bai bekatu tristea,

egoak koloreen ordeztatu nahi izatea!

Alde batera utziko nuke ene edertasuna orren truke emango balidate zuk duzun askatasuna.

Zein dauka arrazoa?

Inork ere ez! Beti gertatzen da berdin:

ondokoak duenak zuk duzuna baino ohea dirudi.

Txoriak lore izan naiko zukeen,

loreak, berriz, txori.

(Maitane Casal Irigarai-Tafalla)

DEMOKRAZIAREN IZENEAN EUSKALDUNEN ZIGORKARI EUZKADI, ERDALERRIA 'REN JOPU?

Gizon zintzorik ez da auzokidearen bizkarretik, berea duan Askatasuna defendatu dezakenik.

36'ngo guda madarikatu artan, Euzkadi zainbiziz burukatu zan eta espetxetan usteldu. Urte luzeetan oiñaze-zigorra jasan zuan, bere-berea ta auzolagunarena zan Askatasuna aldezteagatik, auzoko oien jokabidea berdiña ta lagunkoia izango zalakoan.

Baiñan orduan ere, Ebro'tik beerako auzokide danak kabi bereko putreak zirala konturatu giñan, tiroak ez bait'zetozen bakarrik frankisten aldetik, errepublikar "aliatuak" beraiek ere barrikada berberetik aritzen bait'ziran euren modu maltzurrez gure aurkako tiroketan.

Auen leialtasunik gabeko erasoketak etziran erbestean ere auldu ta txepeldu. Nik, areagotu zirala esango nuke: batzuk disimuloz biguinki jokatu naiean eta geienak triku-tsu batere xuriketarik gabe.

"Erdalerrri erromesa" (Españi peregrina) arek aske bizi nai izan zuan. Erbestean gure euskal babesa, adiskidetasuna lortzen saiatzen ziran. Baiñan, azken batean mendeko nai ginduten gu, ez aldi baterako betiko baizik. Eta jopu, batez ere, zetorren Españi berrirako.

Ordurarte, euren iñixente itxurapean, errukigarri zeritzaizkigun gure erbeste "bidelagun" aiek, euskal arazoa aipatzen zan bakoitzean, ori-gorri zale ziran aietxen antzera, kopeta zimurtuz keiñu zakartsu jartzen zutela komenzitu giñana. Danak, batzuk eta besteak, berdiñak ziran: otso-zuloko kume, españiar.

Eta diodan guztia ez da artarako bidegairik ez daukalako. Alderantziz baiño.

Begira: erbestealdiko urte odeitsu zaar aietan ba'zan gure inguruan, "Iberiar Kontsellua" zeritzana, Salvador Madariaga buztangorri arek burutzen zuana. Euskal abizenak etzion iritzia gure euskal aldera lerratzen. Eta bere mizto lerdetsuaz egundokoak jaurti zizkigun gure aurka.

Ala zion: "Gallegoak, katalanak, leondarrak... Edestian gauza aundi, bakar eta originala sortu digute, "lo español". Baiñan banatzailleak (gu, alegia) ez dakite zer dan aurrerapena, zer dan billakaera. Zenbaiten artean eta mendetan barrena eraiki dugun espiritu españiarra suntsitu nai digute euskaldun banatzaile auek. Eta naiago dute beren esparru edo artalde berezia sortu, aberekoia noski, espiritu gabekoa".

Ori-gorriak eta ori-gorri-moreak txaloka artu zuten Madariaga'ren espiritu goren-aizeputzaren idaz-ujol edentsua; eta baita ondorez zenbait izparringitan azaldu ere ustelkeri gaizkor au.

Nere ustez, au ez da gizon bakar batek egiña, zenbaiten (españiar danen) eragiketa bateratua da.

Ez da zalantzan jartzekoa bereizgarri zaien etiketa ideologikoaren gaiñetik, ba'zala eta ba'dala oiek bateragarri duten zer bait: Euskal Erriarekiko euren betiko bekaitza, betiko gorroto atabikua eta metafisikua, gure arazoa neurtu ta "erabakitzeko" orduan batzen dituana. Danak españiar mozorroz datoz estalita. Batzuk, esan dudanez, gorri-oriz eta besteak gorri-ori-morez. Mozorro danetan Erdalerrri inperialistaren aurpegi ezkabitsua ezkututzen da.

Esaidazute, ba al da errepublikar buruzagirik gure euskal askatasunaren alde agiri-agirian azaldu danik?

Garai aietako ainbat errepublikar eragintzaleren eskakizun publikoak irakurtzen ari natzaizute oraintxe bertan. Begi aurretik igaro zaizkit Gordón Ordax'en esanak Españiar Erkalean ministrari-kontseilluko buru zanarenak. Largo Caballero'renak. Alcalá Zamora'renak. Ara, erakusburu, onek diona: "katalanen eta euskaldunen erreibindikazio arazoa, Guardia Zibilla'ren arazoa da".

Ez dut bat ere gure alde gizonki eta demokratikero mintza danik ikusi. Danak euren ergintzapen oillo-egapean esaneko, txita apal nai gaituzte euskaldunok. Eta ona nere galdera: auek gure adiskide ba'dira, nolakoak ote dira gure etsaiak?

Naiz eta errepublikanoz jantzi, España Una'ren aizto zorrotzez sastakatu nai gaituztenak etzaizkigu iñundik ere jadanik sinisgarri, bizkarreko txeratsua eman ez ba'datozkigu ere.

Guk gure garraxia ozenkatu nai dugu: jarei nai dugu gure etxea, aske jaun eta jabe gure Errira. Eta bizitzen ez gaituzten bitartean elorri arantzatsu izango gatziaie.

Gure gauzak eta deadarrak entzunik (irakurri ba'dakit au horrela euskeraz irakurtzerik ez dutelako) burubero batzuk gerala deituko digute, Baiñan gu euskaldunak gera eta demokratik. Besteen iritziak errespetagarriak zaizkigu. Baiñan gure asmoetan, oin bat Edestian eta bestea etorkizunean, ez da sartzen Españi artifisial orren alde burukatzea eta ezago gure odola ixuriz iltzea.

Askatasun osoa nai dugu eta guretzat itz onek zeazpen bakarra du: ez da askatasun mugatu bat beste nazioen obari ta interesai baldintzatua. Askatasun osoa nai dugu. Ez klase bakar baten askatasuna. Gizaki eta Erri osoarena baiño. Ez dugu nai iñoren odola ixurtzerik, ez gurea ez beste edozeina, esan dugunez demokrata bait-gera. Eta azkenik, Euzkadi euskalduna nai dugu, osorik euskalduna.

BARROKOA

Ber-jaiotza naikoa laburra izan zan, batez be lurralde batzutan, orregaitik arin sartzen gara aldi barri batera, ederti-tankera barri batera: Barroko edo Rokoko.

Tankera barri onek apaingarri geiago dakar. Gure mundua alde batetik bestera dabil, ordularien penduloa lez: erromanikoak apaingarri gitxi, gotikoak asko, ber-jaiotzak gitxi, barrokoak asko eta urrengo datorren klasiku barriak gitxi. Jakiña, beti gauza bategaz aspertu egiten gara.

Apaingarri askogaz datorku ba barroko deritxon tankera au: iruditegi edo retabloetan, Txurrigera nagusi dala, salomonikoak deritxen age beiurtuak, mats mordoz eta orriz beterik eta age-buruak boluta barik, eta bitarteetan apaingarriak ugari eta askotarikoak.

Eleizak ber-jaiotza-aldian lez jarraitzen dabe obo-erdi edo kañoizko sabaiakaz eta arkuakaz, iñoz beeratuta eskarzanoak sortzen dirala. Arkuera au ber-jaiotzan be agiri da. Torreak ba-dauke kupulea, baiña kanpai-lekuen gaiñean eta oso txikia.

Italia'n 1550n. urte-inguruan manierismo zeritxon era bat sortu zan eta gure artera be sartu zan baiña urri. XVII gizaldian dator oso-osoan tankera barria, ezelako zio barik "barroko" deritxona. Izen au urrengo tankera izango dan klasiku barrikoak ezarri daustsoe izeka edo burla lez.



Erroma'n sortu zan XVI gizaldiaren azken-azkenean eta laster zabaldu zan Europa'ko laterri katolikueta, batez be Frantzia'ra ta España'ra. Gure inguruetan ikusten diran eleiz-torre-

Karabaggio'ren "Baco" Florentzia'n



Erroma'ko Kepa Deunaren eleizan "Baldakinoa" edo Errezela: lau age salomonikoak, barrokoaren ezaugarri. Egilea Bernini

rik geienak tankera onetakoak dira. Europa'ko protestanteak asieran aurka jarri ziran baiña azkenean sartu be bai.

Karabaggio (1573-1610) da bide barri

au argi ta garbi artu ebana eta laster sartu ebazan "tenebrismo" edo ilunkeria deritxen irudietako alde illunak, batez be margazkietan. Onek eleizetan naiz errietan lan asko egin ebazan.

Etxegintzan apaingarri asko agertzen dira, naiz barruan naiz kanpoan. Ospetsua izan zen asieran Erroma'n Maderna



etxegiña: onek Kepa Deunaren eleizan aldakuntza aundiak egin ebazan, baiña oraindiño "cinquecento" ren menpean dago.

Flamenkoen margolaritza: Rubens'en "Las tres gracias"

Bernini'k daroa bere betera tankera au eta eredu lez Kepa Deuna'ren eleizako baldakinoa daukagu. Ortik zabaldu zan mundura age salomoniko biurtua. Urtean geroago Bernini'k berak Kepa Deuna'ren enparantzako agedi bikoitza egin eban, irudiz ondo apaindua.

Italia'ko irudigintza aberatsa da aldi onetan. Eleiza-koen artean Dabid daukagu eta kanpokoen artean Apolo eta Dafne.



Frantzia'n beste era bateko barrokoa daukagu eta ez ain aberatsa, (Rokoko XIV) Luis eta Richelieu kardinala ain ospetsuak izan arren. España'ko III Felipe eta Frantzia'ko Errege Eguztia ez ziran

Rubens'en "Jatsiera".
Irudi ederra: barroko, flamenko
larregi sartu e-



Rambrandt'en margolan ederra, flamenkoa, "Gorputz-atalak irakasten"

derlanetara, baiña aurrekoak baiño obeto ekin eben eta España'tik joan zan tankera au Flandes'era eta an indartsu sartu zan, batez be margolaritzan.

Flamenko daritxo Flandes'eko tankera oneri eta eskola indartsua da ez ainbeste etxegintzan ta irudigintzan baiña bai margolaritzan: Rubens (1577-1640) buru dala. Prado'ko Museon ikusi datekez "Las tres gracias".

Margolari aundi orren ikaslea izan zan Van Dick eta beste ikasle on bat Jordaens.

Beste eskola batekoa, protestantea eta oso margolari ona dogu Rembrandt.

Olazar'tar Martin



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO
LAGUNTZAILE

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERRAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
 - Ipuinak asmatuikoak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
 - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.
- Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERRAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterri-lean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.
 - Sariak bost izango dira:
 - 1.ª 300,50 euro.
 - 2.ª 240,40 euro.
 - 3.ª 180,30 euro.
 - 4.ª 120,20 euro.
 - 5.ª 60,10 euro.
 - Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
 - Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERRAZALEAK

EUSKALDUN BARRIA



Prestakuntza programak

Alkarbide

Euskara teknologia berrietan

Euskararen sustapena enpresan

Sentsibilizazio kanpainak

Euskararen sustapena udaletan

Hizkuntz normalizazioa

Elkartentzako laguntza

Euskara da gure konpromisoa. Hori dela eta, legegintzaldiaren hasieran, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza sortu zen, euskararen erabilera sustatzeko eta bizkaitarrei euskaraz bizitzeko aukera bermatzeko:

Euskara sustatuz udaletan. Hamaikatxo diru-laguntza bideratu ditugu udaletara, euskararen aldeko jarduerak bultzatzeko. Guztira 472 proiektu gauzatu dira Bizkaiko 100 udaletan.

Euskararen erabilera sustatuz enpresan. 25etik gora proiektu gauzatu ditugu, euskara gizaratearen eremu guztietara hedatzeko, bai eta lan mundura ere.

Elkarteei lagunduz. Euskararen alde ari diren elkarten hainbat proiektu bultzatu ditugu, 250etik gora; eta euskarazko aldizkarietara ere laguntza eman diegu.

Sentsibilizazio kanpainen bidez. Lau kanpaina egin dira telebistan, prentsan eta irratian, jendea euskararen

arazo espezifikoetara sentsibilizatzeko eta euskararen prestigio soziala handitzeko.

Prestakuntzarako laguntzak emanez. 200 beka eta laguntza eman dira, unibertsitate mailako euskarazko ikastaroak egiteko.

Euskara teknologia berrietan sartuz. Etorkizunari begira, ezinbestekoa delako euskara eta teknologia berriak uztartzea.

Euskararen normalizazioan aurrera eginez. Herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan euskaraz egiteko aukera bermatzeko.

Alkarbide sortuz. Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bilgunea, ahaleginak koordinatu eta baterako ekintzak sustatzeko

...Eta beste jarduera asko martxan jarritz... Izan ere, legegaldi honetan 25 milioi euro baino gehiago erabili dira euskalgintzan, 500.000 bizkaitarren mesederako.

Euskararen alde eguneroko aritzea: horixe dugu bidea.

1999-2003

Lau urte euskalgintzan

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²